



## AMA BIRJIÑA ARANZAZU-KOAREN KONDAIRA.<sup>1</sup>



### I.

#### **Aranzazu.— Ama Birjiñaren agerpena.**

Euskal-erriaren biotz biotzean, Gipuzkoako lurrian, Nafarroa eta Arabako mugarrietatik laster ta Bizkaikoetatik ez urriñ, arkitzen da Aranzazu.

Erri menditi onetako mendirik galantenak eta aitzik latzenak inguratzen dute, zeruetaraño jatorik euren kopet ikusgarriak, euren oñetan irigitzen dialarik epai-zulo illunak ta beldurgarrizko leizeak.

Iru aitzen gañean miragarriri anchiña egindako bakarleku edo konbentuaren orma zarrak an daude oraindik, estalpe gabe, tantaiak, suak eta garrak beltzituta, euren leio zabaletatik iragotzean basoko aizeak urruma negargarriak botatzen dituzala; eta aldamenen eliza berrieratua, elizan Andra Maria maitea, zidarrezko jargoi baten erdian, ogeita bederatzi ispilluk zidarraren gañean distiratzen dutela, bañan zidarrak eta ispilluak baño argi biziayoagaz distiratzen duala Berak, bere eskuz datorkigun ondasun eta mesedeakiñ.

Au da euskaldunen Ama eta Erregiña, chikitatikan guztiok mai—

(1) Monografía premiada con *un makilla con incrustaciones de plata*, en los Juegos florales euskaros celebrados en esta Ciudad en 1890.

tatzen ikasi deguna; naigabeetan poztutzen gaituana eta gere atsegiñak eztitutzen dituen atsegiña bera. ¿Ta nola ez euki euskaldunak gure jaiera irazekia Ama Birjiña Aranzazukoagana, erdeldunak ere leku santu ura ikustean esaten baldin badute ezin litekela bertan egon animia Jainkoganatubage; nai ta nai ez bertanche ezpañetara otoitza etortzen dala? ¿Zer ez luteke esango, guk bezela, amaren magaletik artu izan balute Birjiña onenganako naitasun gozoa? ¿Zer, jakingo balute bere kondaira?

Ama Birjiña Aranzazukoaren kondaira da era baten laburra eta aundia. Itz guchitan esan liteke, bañan bertan arkitzen dira ikaskizun entzungarriak, batez ere Euskal-erriarentzat.

Orain laureun ta ogeitainbeste urte, Jesukristo jaio zanetik 1469-garrenean, nasturik zeudenean gure guraso zarrak anai-arteko gerra izugarrietan, Oñaz eta Ganboaren deiturakin otso amorratuak bezela batzuk besteak zatituzten; iya galtzeko zorian zeukatenean euren Kristau fede garbia sorgiñkerietan sinismena jarririk, eta Jainkoak berak bere asarrea agertzen zuanean urte bitan euria ukatuagaz erri erruki-garri oni; entzun zuan Balzategiko semeak, lagun artean *Ancho-Chapel* zerichon Rodrigo artzaiak, Aloñako larra goietatik arran aundi baten soñua.... begiratu zuan aide guztietara, ganaduren bat izango zalakotan, bañan ez zuan ezer ikusi. Orduan, bere pausoak arranaren otsagaz gidaturik, jachi zan arinainka aldatsa bera.... eta an.... barrenean billatu zuan, arantza baten gañean, Ama Birjiñaren imajiñ beneragarria, eta onen ondoan kanpaechoa mendietako aize garbiari bere soñua ematen.

Ara nola Ama Birjiñak Aranzazutik deitu zien lau aldetako euskaldun guztiai beragana, bere mantupean oñaztar eta ganboarrak anaiak legez laztandu zitazen, ta berarenganako debozioaren bidez oitura charrak eta sinismen okerrak beti betiko aztu zitazen.

Jaungoikoaren esku santua agertzen da gauza miragarrietan. Jai-nak nai izan zuan bere Semea mundua paketutzera etorri zanean artzaiak lenengo adoratu zezatela.... gero erregeak. Jaunak bada nai izan zuan bere Amaren imajiña Euskal-erria paketutzeko agertu zanean, lenengo artzai batek adoratu zezala.... gero España eta Indietako erregeak, mundu bietako koroia zeraman erregeak, kondairak erakutsiko digun bezela.

Egun aietan egiten zan Oñatin erregutezko prozesioa Jainkoagandik euria iristeko, Rodrigok, jachi zanean Ama Birjiñaren agerpena

esatera, billatu zuan kalerik kale ebillela prozesioa, eta pozkidazko uluak emonaz, deadar egin zuan:—¡Jaunak! ¡Jaunak! alperrik zabilte letaniak kantatzen emen bean.... zuen errekuak entzungo dituana Gesalza baño aruntzago dago, nik neronek billatu det, aitez beterritako leku latz batean, aranza baten gañean, bertatik deitzen dizue Ama Birjiñak, bere Semea besoetan duala; aranzatik dingiliska kanpaecho batek joten dau.—Zorotzat artu zuten Rodrigo gisajoa, ta jaramonik egin gabe jarraitu zioten euren letaniari. Bañan artzaiak, bere amazapi urteen ernaitasun beroagaz, barriro esan zioten «bota nazazute nik diotan aitzetikan bera, bertan arkitzen ez bada esaten dedan Ama Birjiña, atozte ikustera nigaz gazteok zergaitik zarrak ezin igoko dezue bertaraño.»

Erabaki zuten orduan urrengo goizean joatea. Igo zuten bada egun sentian, eta arriturik ikusi zuten euren begiak Rodrigo ozta ozta sinistu ziotena. An zegoan, bai, aranza gañean Ama Birjiña bere Semea besoetan zuala; eta, aranzatik dingiliska, kanpaechoa. Belaunikatu ziraden Andra Mariaren aurrean, iñon zituzten bere onran kandelak, ta, onek piztu orduko, asi ziraden ichas aldetik irtetzen urte bi oietan ezkutaturik zeuden lañoak. Prozesioa Oñatira biurtutzean lur egarrituak artzen zuan gozoro euri ugarien bustitza ongillea.

Denbora guchi barru jaso zan Aranzazun elizacho bat; eta bertara zijoazten millaka kristauak, ez bakarrik Euskal-erri guztitik, baizik urriñagotikan ere bai, Ama Birjiñaren imajiñ miratsu ura ikustera ta euren premien oskaia bere bitartez iristera.

Ama Birjiñearen deia ongi ezagutu zuten euskaldunak eta Rodrigok Aloñan entzundako kanpaechoaren soñua laster miraen aomenak zabaldu zuan erri guztietara.

Bañan Oñati eta Mundrague izan ziraden lenengoak dei orri eran-zuten. ¿Nork esango leuke? ordurarte gerra irazekian zeuden erriak elkartu ziraden, bioen artean egiñik Aranzazuko Ama Birjiñaren lenbiziko ballera edo kofradía. Urte guchi ziraden oraindikan oñatiarrak armen indarrez Mundrague ezin arturik lau aldamenetatik sua eman ziotela, eta garrak eche, jauregi, eliza, guzti guztia bageztatzen zuan artean, eriotza eta lapurreta nora nai eramán zutela. Mundraguekoak ez ziraden, euren chandan, obeak izaten euren etsaiakin, eta orain, danok baturik, ekin zioten, indar osoakin Aranzazura bidea zabaltzen. Aitz bizian, mendirik mendi, atara zuten orduan al zan biderik onena; emanik artarako aberatsak euren dirua, ta olagizonak, errementariak,

meagilleak ta beste nekazari denak euren besoen indarra. ¿Nola ez ikusi Jaungoikoaren eskua lan onetan? ¿Nork, ez bada Ama Birjiña Aranzazukoak bildu zituan batasun zoragarrian ordurarte etsai gogorak ziratenak? Oñatik eta Mundraguek paketurik Aranzazura zabaldu zuten bidean izandu zan Euskal-erri guztiarentzat pakerako bidea, andišek gora igo ziran laster alde danetako euskaldunak Ama Birjiñaren aurrean belaunikatzera; ordutik gero ez zan izan ez ganboarrik ez oñaztarrik, baizik guztiak euskaldun utsak. Aztu ziraden Anboto inguruko akelareta ta Durangoko erejeak, berriturik anchiñako oitura garbiak eta sekula ilko ez dan fede egiazkoaren sinismen osoa, bada agertuko badira ere beste gizaldi baten fedetsaiak Nafarroa aldean, Birjiña onen semeak biurtuko dituzte Eliza Ama Santarengana.

## II.

### **Bakarlekua.—Eleiza.**

Arriarango andra Juana deitzen zan emakume prestu bat, eche argidotarrean jaioa, ondasun ugarien jabea, jakintsua ta santia alako eran non Errege Katolikoak, Fernando eta Isabel illezkorrak, eskatzen zioten iritzia euren gobernuko gauza larrietan. Berak pronostikatu oi zuan Granadako irabazkida, gero Españaren onerako suertatu zan bezela, eta Isabel, erregiña aundi ark, nai izan zuan bere aldamenen eramatea beti kortean, baña andre Juanak eukan bere biotza eskeñita erregiña oraindikan aundiago bateri: Ama Birjiña Aranzazukoari. Ori bada izandu zan Ama Birjiñak Aranzazun euki zuan lenbiziko serbitzaria. Ara erretiraturik bizi zan Juana doatsua karidadezko obra argiak egiten, Ama Birjiña zaintzen, bere elizachoaren ondoko ostalari biurtuta Erregeen kortean ainbeste leku zuan Andrea.

Gero, ainbesterañoko limosnak batzen ziraden, alde guztietatikan zetozten kristauak utziak, zeñ elizachoaren ondoan egin zan bakarleku edo konbentu bat eta bertan jarri ziraden Andra María Merzedeskoen ordengo fralleak, euren artean zeudela Fray Pedro Arriarangoa, andra Juanaren semea, eta Fray Tristan Salazar ta Gebarakoa, Oñatiko kondearen senide urrena.

Merzedesko fralleak, konbentua utzirik, sartu ziraden euren ondoren San Franziskoren semeak, gero, oiek Santo Domingoren ordenara pasatu ziradelako, izan zuten ausi luze bat San Franziskorengoakin, onen alde erabaki zuana Rota deritzaion Aita Santu Erromakoaren tribunalak.

Orduan, bein betiko franziskotarrak gelditu ziradenean Aranzazuren jabe, zabaldu eta geitu zuten konbentua obra andiakin larogeita geiago frallentzat leku zuala, guztiak bear ziradelako ara zijoazten kristauai arreta emateko.

1552-garren urtean, iñork nola ez zekiela, sua konbentuak artu zuan, eta guztia erre zan, bañan laster kristauen limosna askoren bidez jaso zan konbentu berri bat, galanta eta ederra ainbesteraño eze bere ondoan elizachoak zirudien chikiegia. Orregatikan 1600-garren urtean asi zan eliza berri bat eta emezortzi urte barru bukaturik geratu zan, gaurko egunean ikusten degun ain andia. Ama Birjiña eliza barri onetara aldatutzean egin ziraden zortzi eguneko jai ta festa ikusgarriak, Aita Santuak barkadoaiña edo jubileoa emanik euretara zijoazten kristau guztientzat. Gipuzkoa, Araba, Bizkaia ta Nafarroatik, Gaztelatik eta Frantziako euskalerrri gere anai maiteetatik jendetalde aundiak etorriarik, egin zan aldaera 1621-garren urteko Andra Mari Agorrekoz, au da Eliza Ama Santak Birjiñaren jaiotza zelebrazten duen egunean. Ainbeste anima batu ziraden zein erromerigilleak betetzen zuten Aranzazutik legua laurdengo ingurua.

Andik urte batera barriz suak artu zuan Aranzazu: erre zan konbentua, erre zan ere eleiza eder ura, berri-berria zegoelarik, bakarrik garrak utzi zuten ikutu gabe aldare nausia, Ama Birjiñaren jarlekua errespetatu naian bezela.

Orduan ikusi zan egiazki Aranzazuko Amarenganako naitasuna. Beriala, iru illabete baño len, batu ziraden bost milla dukat eta geiago dirutan eta beste bi milla, kare, arri, zur eta gañerako gaitsetan; denbora guchi geruago ziraden berrogei ta amar milla dukat... egun aietarako igabur arrigarria. Erri osoak joan ziraden auzo lanean gaitsetuak edo materialak eramatera, ala bildu ziraden egun batzuetan irureun gizon ta berreun uztarri. Laster bada jaso ziraden bakarleku ta eliza berriak. Urtetik urtera geituagaz obra aundiakin, eliza eta aldareak edertuagaz ta apainduagaz otallari, antzezkiñ ta urretzalle famatsuen lanakin, amazzapigarren gizaldia bukatzera zijoanean zegoan Aranzazuko eliza bere konbentuakin bene benetan ikusgarria.

Baña ez bakarrik Aranzazun bertan agertu dute euskaldunak Ama maitagarri oni dioten naitasuna. Nora nai joan diradela, ara eraman dute euren erriko oroitza gozoen gañean Aranzazuko Birjiñaren jaiera bizia. Ala toki askotan ikusiko dirade mundu zabalean Berari jasotako aldareak: Guadixko katedralean, Madriden San Ignazioren elizan, Mexikon San Franzisko-renean, Potosin San Agustinean, Liman, Nueva Veracruzen, Habanan, Kartajenan eta beste ainbestetan.

### III.

#### **Aranzazuko Ama Birjiña, Fedearen zaintaria.**

Gauza erreza izan da Aranzazuko eliza eta bakarlekuaren kondaira azaltzea, bañan ¿nork azaldu Ama Birjiñak bertatik egin dituan mese-dearena? ¿Nork kontatu litzake ichasoetako ondarrak? Nork neurtu zeruko izarren argia? Bada izarrak baño argiagoa izanik eta ondarrak baño ugariagoak, zorakeria egiazkoa izango litzake nigan Ama Birjiña Aranzazukoaren bidez irichi diran graziak kontatu eta azaldu nai izatea. Or daude liburuetan jarririk banaka batzuk; diot banaka batzuk, asko badirurite ere, utsa diradelako Ama miratsu oni zor dizkiogun danen aurrean ipintzen badira. Ez da bakarrik izan bera erientzat sendagiña, naigabetuentzat pozgarria, urikalduen salbatzalea eta, itz batean, beartsu guztien premiak bete dituana, baizikan, bera agertu ezkerero, ez da igaro gure errian gertaera aundi eta doaitirik bere bitartez etorri ez zaigunik.

Mundu osoak badaki nola XVI garren gizaldian jaiki zan Jesukristoren Eleizaren kontra Alemaniako fralle bat, buru arroagaz azpiratu naian Aita Santu Erromakoa. Jainkoaren Probidentzi beti miragarriak atara zuan orduan fralle batik kaltarraitzen zuan Elizaren alde, españatar soldadu bat: Ignazio, euskaldunen loria. Mundu osoan ere gauza jakiña da nola Ignazio bere Loiolako jaiotechean zegoela, frantzesak Iruñan egin zioten zaurietatik sendatzen, sendatu zan era batera gorputz eta animako zaurietatikan eta gertatu zan izateko gero Fedearen soldadu aundia. Bañan ¿nora joan zan bere asmo berriai jarraitzeko indarren billa? Aranzazura. Osatu orduko, echetik irten bezin laster,

joan zan mando baten gañean Aranzazura. An igaro zuan eleizan gau bat Birjiñaren aurrean, eta an, ber berak dio, irichi zuala bere bizitza berriari ekiteko bear zuan arnasa ta ernaitasuna. Gau zoragarria ura, zeñetan egon zan Euskal-erriko Erregiñaren oñetan, bere tellapean, gero zeruetan euskaldunen Aita izan bear zuana. Ara emen batean bildurik gure erriko bi debozio aundienak. Gertaera onen oroimenerako dago ezarririk Aranzazuko elizpean arri polit bat, zeñetan latíñez, euskeraz eta gaztelaniaz irakurten da:

### Ano 1522.

Virginis invisens miles Ignatius aras  
Fervidus hic mansit nocte precando vigil  
Exiit hinc Navarretan per doctus ab illa  
Multa sacra, et volvens corde sodalitium.

Aita San Ignazio Eliza onetan  
Birjiñari erreguz gau oso egon zan.  
Zeruko graziagaz apaindua urten zan  
Jesusen lagundia gero bildu zezan.

Ignacio el Santo aquí, con alto ejemplo,  
Se dió á la Virgen por su fiel soldado,  
y por Ella de gracias mil colmado,  
Salió á ser fundador desde este Templo.

Amazazpigarren gizaldiko lenengo urtietan piztu zan Nafarroan, Frantzia alderuntz sorgiñen fedetsaigoa edo erejia ichusia, jende gaizto batzuek kristaua anima galtzen zituztelarik ipiñiaz Jainkoaren orde z deabrua bera adorutzen. Felipe, izen oneko irugarren Erregeak ikaraturik ikustean Espaiñiako errietan orlako gaitzetea, erabaki zuan predikatzalleak bialtzea jende aiek konbertitzeko, ta jakindurian eta birtuteetan egokienak billatu zituan Ama Aranzazukoaren echean. Bertatik bada urten zuten Frai Martin Okarizkoak, Arakil, Burunda eta Asparrenara, Frai Juan Zigarrokoak Baztango mendietara, ta Frai Domingo Sardok Bost Uritara eta enparauko aldetara.

Denbora asko baño len biurtu zituen sinismen okerretan, zikinkeriarik ichusienetan eta gaitzakeriarik gogorrenetan ichuturik zeuden

anima aiek Eliza Ama Santarengana eta Jaungoikoaren legea gordezera.

Errege ona jua zan andik urte guchira Ama Birjiñari eskerrak ematera, 1615-garrengo Semendi-illaren 12-an igo zan Aranzazura; eta miresturik gelditu zan esanaz ez zuala iñoiz ikusi leku latzagorik, eche ikusgarriagorik, ez ere fralle santuagorikan.

Errege jaunak urten ta gero agertu ziraden goiz batean konbentuko atartetan, nork jarri zituala iñork jakin gabe, balio aundiko ornamentu eder batzuek, au da apaiz soñ urrez eta loraz galantki estaliak eta eliza liburu oso politak.

JUAN KARLOS GERRA-KOAK.

(Bukatuko da)

---

## DATOS HISTÓRICOS

REFERENTES AL

# REINO DE NABARRA. <sup>1</sup>

(CONTINUACION).

### LEKU.

«Lugar, sitio». Johan de *Lecote*.<sup>1</sup> *Lecuren*,<sup>2</sup> pueblo que hubo en el valle de la Burunda. Pedro Miguel de *Lecumberri*,<sup>3</sup> var. *Locumberri*.<sup>4</sup> *Lecorrian*,<sup>5</sup> var. *Lecoriain*.<sup>6</sup>

### LEGAR.

«Arena, piedrecita menuda, graba». Azeari *Legarreko*.<sup>7</sup> Miguel Periz de *Legaria*.<sup>8</sup> Guillermo de *Lagarreta*.<sup>9</sup> Garcia *Legarda*.<sup>10</sup> *Legardeta*.<sup>11</sup> *Legaraytzu*,<sup>12</sup> término en Pamplona. Sancho de *Legassa*.<sup>13</sup>

(1) Véanse las notas al final de este artículo.



## AMA BIRJIÑA ARANZAZU-KOAREN KONDAIRA.



(BUKAERA.)

### IV.

#### **Aranzazuko Ama Birjiña euskal-gerrarien Laguntzalea.**

Euskaldunak irabazi badute eguzkiaren azpian azaltzen diran toki guztietan ichas-gizonen aomena eta gerrari bildurgarrien izena, beti euren biotzak jaso ditue Ama Birjiña Aranzazukoari, zeñari deitzen zion Okendo illezkorrak bere *Laguntzalle bakarra*. Pernanbuko aurrean olandatarren ontzidia topau zuan bein; etsaiak askoz geiago ziraden, bañan Okendok, Ama Birjiñagan esperantza jarririk, eraso zion pelean. Asarrea eta arras gogorra izandu zan. Iya seireun soldadu eta ontzi bi galdu ziraden, baña azkenik beste eun bider bezela onetan ere, garaitzak koroetu zuan Okendoren burua, Olandatarren iru galeoi nausiak ezkutatu ziraden betiko bagaen azpian eta milla ta bederatzireun ereje, euren agintari Hanspater Jeneral famatsurekin, jachi ziraden ichasoko arraien bazka izatera.

Ez zuan aztu euskal-umantak nori zor zion garaitza ain aundia. Bere Estandarte Erreala eta olandatarrai artutako banderarik ederrena bialdu zituan Aranzazura, Ama Birjiñaren aldamenetan esegitzeko, eta eurakin bere ontzian sartu zan burnizko sutunpa bala bat, berrogeitabi libra pisatzen zituana, zidarrezko uztaikin inguratua, zeñetan zeuden gaztelaniaz izkribaturik itz oiek: «*En la batalla naval, que el almirante general D. Antonio de Oquendo, tuvo con la armada de Olanda en Fernambuco el año de 1631 á doce de Setiembre, entre otras balas que quedaron*

*en su Capitana, de las que el enemigo le disparó, ésta es una, la qual ofreció, en hacimiento de gracias de la victoria á la Virgen de Aranzazu como á su única Protectora.»*

Au bezela, amaika doai artu zituan Aranzazuko Birjiñak. Oraindik gaur bere sakristiako arkatilletan gordeta dago kalizestalki gorri bat, erdian dituala zidarrez bordaturik Nafarroaren kareak eta lau egietan lis-lora bana. Au da Nafarroako Errege anchiñatarren oroipen zati bat.

Ogeitabost millatik ogeitaamar millara kristau urte bakoitzean auspezten ziraden Birjiña onen aurrean. Asko zijoazten oñez bide luzeak iragorik; asko ortozikan. Aranzazu ikustera eldutzean belaunikatzen ziraden errezatuz *Ave María*. Geienak konfesatzen ziran, Komunio santua artzen zuten, eta echera biurtzean eramaten zituzten erlikiak bezela Aranzazuko ogi puskachoak ere.

1638-garrego udazkenean erromeriagille guztien artean zegoan bat jende danen begirakunak berakin zeramana. Zan Don Diego Butron, Ondarrabiko Alkate Jauna, ainbeste milla frantzesek legorrez eta berrogeitaamar ontzik ichasoz ersitzen zuelarik irurogeita bederatzi egunean, bere erria gogorki eskudatu zuana, zazpireun soldadukin bakarrik, ikaratu gabe ikusteagatik murallak ausiak, echeak lurreratuak, lurra berriz aizeratua bere barrengo minak lertutzeaz, Espaiñiako ontzidia ondatua, eta ejerzitua desegiña; beste denak esperantzak galdurik zeuzkatela, esan zubenak iñork aitatzen bazuan errenditzeko itzik bertanche kenduko ziola bizia, eta erria gordetzeko bala guchi bazeuden, berak gogoz eskeintzen zituala milla eta bosteun libra zidarrezkoak, echean prest zituanak, urtu eta bala egiñik frantzesai jaurtitzeko.

Erru aundiko gizon argidotar ura zetorren Ama Birjiña Aranzazukoari eskerrak ematera, entzun izan zitualako bere erreguak, iritzirik españatarrai garaitza miragarri bat. Andra Mari Agorrekoen bezperan agertu zan ondarrabitarren begietara, sinistu ezin zutela, Espaiñako ejerzitua Alfonso Enrikez eta Belezko Markesen mendean, eta frantzesena lau zatitan puskatu zuan: «batek igas egin zuan; bestea illda geratu zan; bestea preso, eta azkenengoa itoa Bidaso ibaian.» España guztiaren pozkidaz Ondarrabia libre zegoan. Uri leial onetako Alkate prestuakeraman ziozkan, bere eta bere errien izenean, Ama Birjiña Aranzazukoari doai ikusgarriak; beste askoen artean Chinan ederkiro egindako urrezko kate lodi bat bederatzireun dukat balio zituana eta ordutik gero beti Ama Birjiñak beraz aldian ageri zuana.

## V.

**Aranzazu gizaldi onen asieratik zazpi urteko gerratirarte.**

Traizio lotsagarri baten bidea frantzesak Españiaz jabetu ziradenean, Josepe Napoleon, erregetzat jarri zan sarbanatuak, milla zortzireun ta bederatzigarren urtean espetu zituan fralle-orden guztiak, euren ondasunak bereganatzen zituala; eta agindu zuan fralle bakoitza beren jaioterrian bizi zedilla. Bertatik, bakarrik gelditu ziraden Aranzazun Oñatin jaiok; beste guztiak begiak negarrez beterik zituztela urten bear izan zuten bakarleku maitatu artatik. Gelditu ziraden Oñatiko semeak amabost lagun, urte bi geroago bederatzi bakarrik ziraden, eta, oiek ere ezin ikusirik, etorri zan frantzes konpañi bat eta eraman zituan preso, lenengo Salbatierra ta Bitorira, gero Frantziara naikoa neke eta gose igarotzera.

Orduan oñatiko erria bere apaizakin juan zan prozesioan Aranzazura, eta, arturik Ama Birjiña beneragarria, ekarri zuan San Migelen eliza galanterara, nun gertatu zion altare eder bat kolejioko kapillan.

An egondu zan iru urtetan, kristau naigabetuen erreguak beti ongillea entzuten.

Frantzesak joan ziraden; eta oraindik euren belarriak ikaraz entzuten dute San Marzialgo garaitza-lekaioa. Biurtu zan bere Aranzazuko elizara Ama Birjiña 1814-garren urtean, batu ziraden ere bere seme franziskotarrak. Bañan, andik sei urtera, berriz sortu zan gerrea, orain anai arteko gerrea. Etorri ziraden soldadu zarrak Aranzazura. Ostu zuten eskura arkitzen zan guztia eta sua eman zioten konbentuari. Frailleai agindu zioten Bidaurreta derichon Oñatiko konbentura joateko. Ara eraman zuten Ama maitagarria Oñatiko erri danak lagun-dutzen ziola 1820-ko Urrillaren lenengo egunean.

Igaro ziraden ala iru urte, eta 1823-ko Bagillearen 10-an, España paketurik zegoela, barriro igo zan Andra Maria bere aranza-arteko echera. Orain ere ez zuan pakeak urte asko iraun. ¿Nork ez daki Fernando Erregea ill zanean sortu zan zazpi urteko gerra? ¿Nork ez du entzun gerra aren asieran Aranzazun zer gertatu zan?

1834-ko Abuztuaren 18-garren eguneko illunkeran batalloe bat agertu zan Aranzazun. Fralleak ongi etorria emanik eta adiskideak legez arturik, afalduta gero despeditu ziraden gabeko amarretan. Ordu bete baño len agertu zitzayon euren agintaria Aita Guardianari esaten eze Rodil Jeneralaren aginde estua zeukala fralleak preso eraman eta Aranzazuko eliza ta konbentua auts biurtzeko, guzti guztia bukatu izan biar zuana urrengo goizaren zortziretako. Ordu batetan entzun zan tiro bat, beriala onen otsera sartu ziraden soldaduak alde guztietatik leku santu artara eta asi ziraden ate, altare, ormak eta koroa bustitzen ur errekiñ bategaz. Iruretan Aita Guardianak artu zuan Gure Jauna, andik ordu batera, bildurik fralle denak kanpaien soñura, lauren artean jaso zuten bizkarretan Ama Birjiña, eta besteak kandela irazeki bana eskuan zeramatala, abiatu ziraden Oñatira, soldaduz inguraturik, negargarrizko prozesioan letania errezatzen.

Bitartean suak erretzen zuan Aranzazu, garrak kiskaltzen zituen ainbeste lanez miragarriri egindako eliza ta bakarlekua, ainbeste doai kristauen jainerak bialdutakoak, erregeen ta aundikien ofrenda ikusgariak, Murillo famatsuaren pinturak, Gregorio Hernandez-en talluntzak, gorputz biziak zirudienak, Okendo umantaren ichas garaitzetako oroi-tzak eta beste ezin kontala erlikia berdiñ gabeak....

Ezin esan liteke Euskal-errian zabaldu zan naigabea. Berrogei ta amasei urte igaro dira, eta oraindik gure mendietako andreak, euren aurchoi lotaratzean erakusten diete gau triste ura gorrotatzera kanta-tuagaz.

¡Neure Ama Birjiña  
Aranzazukua!  
Rodilek ¡erre dizu!  
Zure konbentua.

## VI.

### **Aranzazuren berriera.**

Bidaurretako elizak gordetzen zuan Andra Maria zoragarriaren imajin beneratua; eta aldameneko ospizio echean bildu ziraden al zuten

fralleak, bertatik euren Ama serbitzeko. Sekula ez zuten galdu oñatiararak ura bere jarlekura biurtzeko asmoa; eta 1844-garren urtean, ikusirik artarako bidea bazirudiela, batu zan batzarre bat eta erabaki zuan egitea Aranzazun eleiza eta Birjiñaren begirunerako bear ziraden apaiz edo kapillautzat eche bat, aurreraturik dirua gero kristauen limosnakin kobratzeko ustean.

Ala egin zuten, ta lanak bukatu, etorri zan, Euskal-errien pozkidarako, Birjiña aldatzeko eguna. 1846-garren urteko Semendi-illaren 19-an, goizeko zortziretan, urten zuan Oñatiko erritik prozesio oso ikusgarri batek. An zijoazten euskera itz egiten dan bazter guztietako seme ta alabak, sei milla anima; euren erdian Ama Birjiña aldiezka zeramaten apaizak eta errietako buru ta nagusi ziraden jaunak. Egualdi ederragaz eguzkiak zeru urdiñean bere argia zabaltzen zuelarik, eldu ziraden Aranzazura, ipiñi zuten Imajiñ beneratia bere anchiñako jargoian eta zelebraratu zan beriala meza nausia, kantu alai eta musika-soñu entzungarriakin.

Anchen dago ordutik ona geure Ama Birjiña lengo gizaldietan bezela orain ere ondasunak bere esku zabalakin euskal-lur-maite onetan ugaritzen eta orain ere debozio biziagaz, lengo gizaldietan legez, gura diotela gere erritarrak. Bestela ez dago begiratzea baño ordutik ona oien limosna utsakin Aranzazun egin diraden obra eta lanai.

Fray Elías Arregi kapillau nausiak bere gain arturik Oñatin lenbizi bildu zan batzarrekoen kargu ta kontuak, bukatu zituan eliza osoro berrieratzeko bear ziraden lanak eta joan zan apainduten urtetik urtera Birjiñaren echea.

Eta azkenengo amabi urte onetan miragarriri agertu da Aranzazurako euskal-kristauen jaiera, iñolaz ere atsekabetan geiago billatzen dutelako semeak euren amaren aldamen gozoa.

1878-garrengo Agorrean, Frai José Esteban Epelde, kapillau nauusiak eskubidea iritzirik Gobernuagandikan, San Franziskoren baki-dargoa edo komunidadea ipiñi zan Aranzazun; kapillauen echean. Gero, limosna aundiak baturik, ala Españatik nola Ameriketatik, egin zan Gesalzatikan Aranzazuraño bidea kocheak ibilltzeko lain. Egin da ere konbentu berria chit aundia, baña ez leagoa zegoen tokian, zergatik ezin izan zitekian artarako eskubiderik logratu orduan beintzat. Orregatikan dago bidetik beste aldera, zubi batekin elizara pasalekua duala. Egin dirade bidean amabost kapillacho oso pollitak, Errosario Santuko misterioak agertzen ituztelarik, Zapatako aitzetik Aranzazura

bitartean. Izandu dira peregrinazio bi: bata 1879-garren urtean, eta bestea 1881-garrenean zortzi egun iraun zuana. Gauza oiek guztiak bear dan bezela azaltzeko beteko litzake ongi bakoitzagaz liburucho bat.

Eta azkenik Erromako Aita Santu Leon XIII-garrenak izentadu dio Andra Maria Aranzazukoari bere meza batarra, len Españian Pila-rekoak eta Monserratgoak bakarrik zeukatena; eta gero 1886-garren urteko Garagar-illaren 6.<sup>an</sup> izan da Aita Santu beronen emakidaz urrez koroetua geure Ama Birjiña.

Amabostgarren gizaldian artzaicho bati agertua, laureun eta geiago urtegero izan da Aita Santuak urrez koroetua.

Bitartean iru bider suak erre dau bere echea eta iru bider kristauen debozioak jaso dio berria.

Iru bider ¡ai! atara dute bertatik; bere semeak kartzelaratuak edo erbestetuak izan dialarik, baña beste ainbeste itzulia izan da bere jarlekura, euskaldun danen poz ta zorionez. Berak ekarri zigun pakea, bere aurreanazu zituzten Oñaz eta Ganboak euren sekulako gorrotoak, eta guk gerrara abiatu geradenean, pakearen izarrak distiratu ez dezan jachi degu bere zeru goitikan.

¡Aranzazu! ¡Aranzazu! zu zera Euskal-erriaren iduri bizia. Suak eta garrak beltzitutako orma tantaiak, euren sustraiak lurraren erraietan dituztela jasotzen dira estalpe gabe, galtzapenatuak, Ama Birjiñaren inguruan. Ezin izan ezeke Jauregi egokiagorik Euskal-erriko Erregiñak, zeren euskal legeak, orma oiek bezin tantaiak, eurak bezela lurraren erraietan sustrai artzen dutenak, dauden eurak bezela galtzapenatuak, Gaztelako su madarikatu batek erre dituzala.

Bañan ainbeste aldiz berritu izan badu Aranzazu kristauen fedea, fede orrek berak berritu lezake euskaldun legea. Amets bategaz, asmo batean, gogo ber berean danok elkaturik gertu bagaude, denborak izango dute euren aldiona, etorriko da sasoi egokia geure ametsak egikarituak ikusteko, geure asmoak eta geure gogoak arras betetzeko. Ortako anchiñan zireaden Ganboar ta Oñaztarrak bezela, gaur diradenak batu bitez Aranzazuko Ama Birjiñaren mantupean, deiturik biotz osoarekin euskaldun zarren dei beti garbia:

¡Jaungoikoa eta Foruak!

JUAN KARLOS GERRA-KOA.

